



HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIAREN 2020KO OTSAILAREN 17KO EBAZPENEAN EZARRITAKO DATAK ALDATZEA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, DANTZAKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZETARA SARTZEKO PROBARAKO DEIALDIA EGIN ZEN, 2020KO PROBA ANTOLATZEKO, GARATZEKO ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO JARRAIBIDEAK EMAN ZIREN, ETA 2020-2021 IKASTURTERAKO ONARPEN-PROZEDURA ZEHAZTU ZEN.

Gaur egun bizi dugun osasun-larrialdiko egoera eta indarrean dauden administrazio-prozesuen epeak etenda dauden 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria aplikatzearekin bat, aldatu egin dira Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetara sartzeko probarako deialdia egiten duen Hezkuntza Berriztatze zuzendariaren 2020ko otsailaren 17ko Ebazpenean ezarritako datak.

- 2020ko sarrera-probetan **izena emateko epea maiatzaren 11tik maiatzaren 26ra** izango da.
- Maiatzaren 27an, "Dantzerti" arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Eskolaren webgunean argitaratuko da proban parte hartzeko onartu diren eta, hala badagokio, baztertuta geratu diren pertsonen zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. Akatsak zuzentzeko epea 24 ordukoa izango da, argitaratzen denetik hasita. Proba egiteko onartutakoen eta, hala badagokio, baztertutakoen behin betiko zerrenda maiatzaren 29an argitaratuko da.
- Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan sartzeko proba espezifikoak egiteko datak behar besteko aurrerapenaz argitaratuko dira Hezkuntza Sailaren webgunean eta Dantzerti Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Eskolaren webgunean.".

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 17a.

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA